Gu «razista»... ta zuek?

Guretzat, bi eratako gizonak dira mundu ontan: garbiak eta nastuak. Garbiak, sinisten dutena, agirian jartzen dutenak eta agirian sinisten dutena beren bizibideko jokaeratzat aukeratzen dutenak. Au esan eta sinistu; eta siniste orren naurritan bizi.

Nastuak, ostera, beti beren barrua besteei izkutatzen ari diranak. Au sinistu ta ori egin; itzak alde batera ta bizitza besteraka eraman. Onelakoak, beti itz-erdika, lañopean daramate beren jarduna. Ta guretzat ezta ezer, jokaera ortako jendea baiño kaltegarriagorik.

Zoritxarrez, orrelako landareak edozein lurretan erkitzen ditugu. Kanpoan eta auzoan, eta okerrena dena, etxean ere bai. Euskalerrian ere azkenaldi ontan, agertu zaigu orrelako belarra ta zenbait belar txar bezela, gure zelaietan nagusi jarri nairik ari dira alegiñetan gure gazteen artean.

Ez joan olengana, biotza zabalik, esku-erakutsika... Ordañez, pozoia txertatuko dizute. Zure biotz-zabaltasunak, eztu aiengan arkituko, zipotza ta izketa illuna besterik.

Ta gaztedi euskalduna belar kaltegarri ortatik gorde nai genduke.

Gure giroa beti garbia, zabala, ematekoa izan da nun-nai. Baiña begira ingurura norekin ari zeran. Ikusi zure biotza eskeiñi baiño lenago, zein datorkizun itz legun eta asmo okerrez.

Au guzi au, gure artean gertatzen ari dana ikusita garbi agertu nai genduke. Ba-dira gure gazteak zerbait euskaldun bezela egin nai dutenean, beti itzakika joaten zaizkienak.

—Zuek «razista» zerate.

Orra arpegira zer botatzen dion gure gazte jatorrei. Eta itz oiekin lotsatu nai gaituzte, gure etxearen alde lan egin nai degun bakoitzoan. Guk «*munduko*» bezela *jokatu bear degu*; «*euskaldun*» bezela *joka nai* izate ori, Hitler'en teori ta erakutsietan aritzea da.

Gure «arraza», gure «odola» nagusi jartzen omen-degu, beste munduko arazoen kaltean. Zertarako *nekazari «euskaldunak»*? *zertarako langille «euskaldunak»*? Mundu guziko langilletasuna da guk begien aurrean artu bear deguna, ta beste guziekin bat egin; ez gure erri txiki onen esletan bizi.

Gauzak *garbi jarri bearra dago aurrena*. Hitler'en «*zarismoa*» ta bakoitza bere eskubidearen nagusi izatea, bi gauza oso banak dira.

Euskaldunok, «euskaldun» bezela jokatu nai degunean, oso besterik egiten degu. Gu gere etxean, eskubide *berdiñetan bizitzekoak gerala*, esan nai degu. Bakoitza bere oitura, izkuntza ta jakite berezla aztertzeko ta indartzeko eskubide osokoa da, mundu onetan.

Mundukoa izateko, *etxea ondatzen utzi bearrik eztegu. Bakoitzak bere* atadia garbitzen ba-du, erri osoa garbi agertuko da. Beste errietakoak bezela, aurrena gure lurra, gure jakintza, gure izkera ta izate apartekoa zaitu bearra degu. Ez, beraz, guregana itz nastu ta smo illunez urreratu.

Galñera, mundutar oiek, gizonen arteko liskar eta burrukaren bat sortzen danean, oso bere etxeko agertzen zaizkigu. Gu «prantzes» ta gu «aleman» izaten dira orrelakoetan. Orduan bakoitza bere etxea gordetzen asten dira, beste edozein bezela.

Fede onez debillenari, errespeto osoa zor zaio. Zerana, ta sinisten dezuna zuzen daramazun bitartean, eztet zure kontra ezer. Baiña gure «euskalduntasuna» piztu ta gordetzen asten geran bakoitzean, gure asmoak baztartu ta zokoratu nairik datozkigun oiek; ta beren asmo okerrak izkutu gordetzen dituzten oiek, utikan!

JUAN SAN MARTIN-EKIN, "Sinera-ko liburua" dela bide

ERROMA-TIK

Adixkide zintzoa:

Pozikarren jaso nuen eta egun bitan irentsi «Egan» en argitarata duzun Espriu Salvador jaunaren «Sinera-ko liburua». Alako betekada batez irakurri dut aurrenetik bukaeraño, eta segurki ez da huntan konformatuko lenengo txandaz dastatzerik artu nuen nire gozamena. Esker aunitz gogoratu nauzulako.

Eta zuri oraintxe bertan erantzun nahi izan dizut, gero berandu gerta ez dakidan. Badakizu lendik eta betidanik estimatu zaitudana. Orraingo huntan, *siñets nazazu*, ustegabeko sorpresaz hunkitu nauzu, ez bai-zindudan hain olerkaridun irizten. Itzulpena bati ekiteko behar da bihotza, behar da ezpiritua, behar da minberatasuna, ots, behar da poeta izan. Eta nire eritzi apalean gallurkiro bete duzu zere eginkizun ori. Ez da antzematen ia-ia itzulpena denentz. Behar bada, bi edo iru tokitan ez naiz gogoratzen zein tokitan), nik aditza sartuko nuen frasearen argitzeko, bizpairu aldiz irakurri behar izan bai-nuen ulertu nezan.

Beraz, kunplimentuak at, torizkizu nire zorionik behartuenak.

Bañan, huntaz gañera, beste zertxo bategatik ere eskertu nahi nizuke, eta da zure itzulpenari esker ezagutu dudala Espriu aundia, bere luma izugarria. Ez nuen ezagutzen, eta damu dut gaur orain arte ez ezagutua. Pozten naiz hain maixu ona arkitzea, *sinbolistegi* baderitzait ere. Dena dela, bertsok benetan oso onak dira, zartatzen dutenak, zerbait asko esaten dutenak (misteriopean bada ere).

Eta orain, nahi gabe, tulunbio illun batean sartuarazi nauzu, baren eta onen poesi-eritziak bide. Gure arima ez ote da, Yon, (itzaurrean zenion bezela), ez ote da, diot, sinbolismoz erantziagoa? ez ote gera errealistagoak? gure mintzaira ez ote da *zuzenzuzenezko* bitxurratik doana, metaforak urrituz? Eta au, *zergatik?*

Hain zuzen ere, herri bakoitzak ditu bere poetak, jakiñeko garai bakoitzean umatuak. Beraz, eboluzioari itsasia dago gizona. Gizona aspaldiko da, baita ere poesia. Bañan, badakizu, «gizon» itza, berez, *astratoa* dugula, materiz billutsitua; *ni ta zu* ta *besteak*... bizi gaituzu *konkretuki*, eta konkretizazio hunek *personalizatzen* gaitu historian zear. Kontu egizu gizona beti izan dela gizona, bañan ez beti berdiña. Esemplu arrunta batez dasaizut: Paleolitiko aroko gizona etzen izandu astronauta. Hunegaitik, munduaren joanaldiak sekulako zabalpideak dimensioak) irikitzen dizkigu; eta deskuikoz lipar batez lo artu bageneza eboluzio hunen uneoroko erneal-dian, une ortatik bertatik atzeratuak geundeke eta ez giñake izango *momentu* haren *testigu*. Hunekin esan nahi ni nizun poesiak, gizonak bezela, badituela bere moldeak, bañan, arren, ez direla *aldagaitzak*.

Zerbait berdintsu gertatzen da filosopian ere.

Ingelesak, esate baterako, positibismu ta Wingensthein-en eskolarekin doazkigu (philosophie du langage), eta bestaldetik, Viena-koak, ia geienak fenomenoloak dira, ots, existentzialistak (izen hunek nulabaiteko guzien ama izateko balio badu beintzat). Beraz, garai bakoitzeko lurrak ere soro bereziko landarea muskiltzen du (nun nolako), eta hunelaxe goaz eboluzioaren hegaletan alkar-osatuz, alamoduzko dialetika baten bitartekoz.

Arestian, *ideia* astratoa dela esan dut, eta zer-gauza zentzueri emana bakarrik *konkretua*. Hunela diogu: *au, ori, bestea*... Eta astrazioa izanik giza-ezagutzaren nahitanahiezko kindizioa, ementxe gabiltz benetako *errealitatea* (ez asmaturikoa) ikuitu naiez *pentsamenduarekin* harma misteriosoarekin: nor intuizioz (filosofoak eta hartistek geienbat), nor probabilitatez (zientifikuak geienbat), nor mistikaz eta fedez (teologoak batipat)... Guziok nahi dugu errealitate bakar ori, bañan zenbat bide desberdiñez!

Esana bedi kritika-ordurako zintzarri bortitz bat: au da, ez gerala guziok toki beretik bideratu behar. Auzi huntan, egia esan, ni dexente errelatibista nauzu. Poesian ere orobat. Ez ditut maite esklusibismoak. Esate baterako, esempiuz mintzo nadin, Txillardegi-ren «Hartaz eta huntaz» saiaketari, den ederrean, dogmatismuaren pekatu markatua atxikiko nioke. Eztakit ezpirituaren batasuna, gizonontzat, hutopi bat danentz, bañan badakigu, historia lekuko, ez dela batere lortu-erreza. Hain zuzen ere, ezpirituaren hegalak eta errealitatearen gerri mehea ez dira izan noski txoriarenak. Galde dezaiokegu Teillard de Chardin bateri, urrutira joan gabe ta kritikak oro kanpo, ia zenbaterño lortu duen bizitza guziz amesturiko batasun ori.

Poesira natorkizula, bildur aundikin hunako au baietsiko nuke: poesia ez dela estetika uts, ezta ere sozial uts. Zer orduan? Alkar-mintzatura gaituzu huntaz zenbait lagun, eta azken funtsean ez nizuke esango zer den poesia bere definizioan; izango du noski, bañan iñor iritxi al da bertaraño? Nik hunela irizten *dut*:

—Poesia zer ez den:

itz utsak eta loratuak, kanpoko gauzen deskrizio soilla. Au segurki ez da poesia, ezta ere estetika, ots, zerbait *ederki* esatea bakarrik.

—Poesia zer liteken:

pertsona konkreto baten barruko ta kanpoko mintzaira, gizonak «izan» misterioso orrekin eduki dezaken alkar-izketarik *beiñena* ta *zintzoena*, *izkutukoena*, eta au dena *norberakiko reflesio barrukoan* mamitua. Alkar-izketa diot, bai, komunio fenomenologiku ta metafisikuan.

Jende soillak, ia geienak, ez dute reflesionatzen barne - maxioatzen) mintzodirenean edota lumaz ari direnean. Eta, diotenez, (ikus esate baterako Heidegger) hartistek ikuitzen dute *sakonenik* «izatea ta izatearen zerak»; beraz, hartista litzake bide batez fenomenologoena ta metafisikoena.

Eta hunekin, poesia, hoartuz edota hoartzeke, filosofiaren *arima* bezela lekutzen dut, hartaren bihotza bezela. (Esan gabe doa poesia, filosofia bezela, ezin ditekeala erosi formula batzuek ikasiz, baizik-eta *biziz* bizitzaren dimensio guziak, ots, adimenarenak eta sentimenduarenak eta bihotzarenak (gizona osotara).

Guzia laburki esanda: *poesia gizon personalizatu baten espresioa* da, edota obekiago, izan bide diteke.

Poesiari loturik datorren ezkero, kolpatu nahi nizuke beste puntu bat,

(10'garren orrialdean jarraintzen du)

DIZDIRAK

IKASLEAREN JORNALA

CARLOS SANTAMARIA'k

Ba dago lege-oñarri bat guztiak onartzen dutena, teoriaz beintzat, "Aukera berdiñetako legea" alegia.

Erreztasun berdiñak izan bear dituzten, mundura etortzen diran aur guztiak.

Naiz pobreak, naiz aberatsak, jakintzaren ateak zabaldu bear zaizkie gazte daneri.

Gazte bakoitzak, bere adimenaren eta bere arduraren arauaz, merezi dun lekua arkitu bear du Gizartean.

Au da teoria. Patrikan beste zakur batek zaunka egiten digu.

Gazte batek, berez argia ta ikasgura izan arren, baldin familia pobre batean jaio bada, eztu karrera egiteko aukerarik izango.

Goiko irakaskintzaren gastuak nola pagatu?

Eta, bestaldetik, nola bizi, bear dan jornala etxera eraman gabe? Unibersidadean ibiltzen diran eun gaztetik bat bakarrik izan oi da langille-familiaren seme edo alaba. Au ezta arritzekoa, goi mallako irakaskintza "lujo" bat dalako gure artean.

Beka ta laguntza asko zabaltzen dira, bai, baiñan eskas ta ez-naikoak gurasoen gastu ta kalteak benaz ordaintzeko.

Gizarte ondo antolatu batean, gazte argienak eta arduratsuenak jarri bear dira ikasle, eta ez diruduenak orain gertatzen dan bezela.

Egunero ikusten ditugu gazte bikaiñ asko, lenengo maliako eskola besterik ez dutenak, diru edo ondasun faltagatik.

Eta, ordez, beste gazteak, ikasteko batere gaitasunik eztutenak, amaiku urtez jaraitu ikasketan, bere familia ahalduna dalako, geienetan batere protxurik gabe.

Langilleen seme alabak ikasi ahal izateko soluzio bakarra da idazlearen alogera edo jornala.

Ikasle beartsua, beste nolanaiko profesionala bezela, bere lan-saria artu bear du eta Gizartea, Estadua da, izan ere, alogera ori eman bear diona.

Ikasleak, bere eginkizuna benetan egiten baldin badu, Gizartearen alde jokatzen du, eta ez bakarrik bere buruaren alde. Bere jakintza Soziedade guztiak gozatuko du biarko egunean.

Asmo au, ikaslearen alogera, oso zalla da oraingoz, jakiña. Gauzak osotoro aldatu bear dira joku ori lortzeko. Eta batez ere jendearen mentalidadea, aldatu bear.

Bañan len-bai-len, besterik itxaron gabe, saio batzuek egingo bear lirake arrelakoak.

Unibersidade bakoitzean ikasle pagadu, alogeradun, batzuek, berreun edo irureun, izango bear lirake.

Berak, Unibersidadearen enpleadotzat artuko zaizkie, ta bere eginkizuna ikastea izango zan. Ikaskuntza izango zan, gazte oien bizibide ta irabazpide guztia.

Estadu sozialista batzutan ikasleari langilletzat begiratzen zaio, baita arrazoi andiz ere. Baldin alegiñak egiten ezpaditu, lagrikara edo Siberiara bialtzen zaio lan egitera, ta kitto.

Bidegabekeri izugarria da emen gertatzen dana. Nai ta naiez, saiatu bear da egoera ori zuzentzen.

«EMAKUME AMOROSTUA»

(BILBO EGALEKO HISTORIAK)

Bein batean, ba-zan emakume pobre bat Kastilla aldean jaiua. Bere pobreza astunak bultzaturik, ta aragiaren indarra espirituarena baño sutsuagoa izanik, emagaldu biurtu zan.

Alantxe pasatu ebazan gaztearoko urteak. Zahartuaz oiala konturatu zanean, gizon batekin lotu ta berarekin amorostuta bizi zan.

Orduantxe atera ziran Kastilla aldetik, eta Bilbo egalera allegau ziran senar-emazte aidearekin.

Astiro-astiro gizon ori bere bihotzaren gar eta samurtasunik aundienakin maitatzen asi zan. Iru seme izan zituan, eta berentzat alegin duaz poz aundi bat sentitzen eban.

Bere alaba nagusiena ezkontzeko sasoira eldu zanean, auzoko mutil gazte batekin esposatzen zala deklaratu eban...

Pozik eta alaikiro eleizan sartu ziran ezkontideak, ta senitarte guztia be bai.

Ama, emakume amorostua, zan madrinea. Gure Jauna emoteko orduan, asi zan abadea andra-gaztearengandik, gero gizon-gazteari, gero padrinuari... Ta amari, *emakume amorostuari, ezeutzan emon eta esan eutzan:*

—«Zuk ezin zeinke komuniatu».

—¡¡Ni zapatu gabean fraillearekin konfesatu nintzan, jaunak!!

—Baña ezeutzazun zure situasiñoaren barri emon. Zugaz bizi dan gizona, ezta zure senarra!

Emakume amorostua gorritu zan, egon-eziñik, arrabiaturik, sututa... ta abadea ta *inguru guztiak madarikatu nahiean.*

Meza amaitu ondoren, sartu zan sakristira arrabioa dariola ta asi zan sermogintzan begiak sututa ta eskuak gora-goraka:

—«Jose nere senarra da. 19 urte daroiaguz ezkonduta. Malte dot bihotzez, maitatzen nau gogotik. Ezkonduta gagoz!!

Orain nora juango nazala uste dozu, ba? Nere gorputzak eztau balio ezta amar xemeikogaitik eskeintzeko be. Jose nere senarra da!

Zu etzara abadea; zu sarjento-bijilante bat zara, oñoren desgrasiekin enteratzeko sarjentua! Kristo galdurik zana billatu ta salbatzera etorri zan, ta zu, ostera, galdurik zana galduago egitera. Madarikatuori!! Jose nere senarra da juan dan *emeretzi urtetan*!!

A. ZELAYETA

GAZI-GAZAK

Bizi nazan etxetik urbil, kalean bertan, antxiñatiko argazkigille edo fotografo dan adiskide begikoa dot.

Orain berrogetazak urteak, iru ankako tresna zarra zapi baltzakin estalduten ebaneko adiskidea. Eta trezna zarra ez ezik, bera be zapi baltzarekin estalduten zan, kokomarro bat lez, eskuan puxika andi bat eroalarik. Gaur, toki ta trezna bikañak daukoz, ta eztau kokomarro yantzi bearrik izaten bere lanerako.

Lengo egunez egin neutson bisitan, antxiñako argazki zarrak neuri erakusten yardun zan, esanaz:

—Talde au, Salantonioetan Urkiola'n atara nayoan. Beste au, Pasko erdikoz, Santa Lusia'ko errromerian. Au, urila zana dok; eta au, berendla zana; ez al ebazan egaztzen?

Dan-danak, bibotia eroela oartu neban eta galdetu:

—Baña... dan-danak yaroek emen bibotia ¿ez al egoan batonbat ain barik?

—Bai! Baña orduko tramankulu areik, dan-danei, berez ezarten jotzan bibotia —erantzun eustan—.

—Andrazkoori be bai?

—Baita!

—Ta... andrazkoeri bibote ta guzti emoten al zeuntsezan argazkiak?

—Ez! entregau baño lenago auzoko bizargilleari eruaten geuntsoezan mostu egioen. Gaur etxoagu bizargillearen bearrik. Gaurko trezna oneik irudia dan lez ataratzen yoek. Polita, polit; itxusia, itxusi. Baña oneik txukuntzeko gaiak bai yaukaguz ta dan-danak urteten dozak guapa. Arpegi lazduna, leun-leun; zurbilla, masail-gorri.

Ta ain zuzen be, itxusi ta motsak dozak gure bezerorik onenak. Oneik euren irudia eder ikustean, eskupekoa ziur izaten dok.

Eta iñostana egiztatzeko (eskupeko barik e?) argazki bat atara eustan neuri: Neure txikimurrak kenduta; uie-zurixa baltzituta: masallak gorrituta. ¡Rodolfo Valentino baño dotoriago!

Or zearko egunkari ta aldizkarietan senargai billa etorten diran anuntzioetako neskatilla bati, argazki ori bialduko baneutso, ziurki baietza emongo leuskit.

Beraz, kontuz, batez be neskatillok, argazkiren baten ostopo egin eztagizuen. Ezagutzak egin barik, ez emon iñori baietzik, gero damu izan eztagizun.

—•—

On Kerollmo'k etxe barria egiteko lur-zatia erosi eban. Muna andia egoan bertan, ta, a bardindu egin bear zan oñarri-bideak egiteko. Bere kontura egin nai eban lan ori, ta trezna-erosketak egiteko asmoz deitu eutson Txanton etxegiñari, eretxi eske, esanaz:

—Txanton: ¿zenbat atxur da zenbat otzara bearko dodaz muna orren lurrak aldatzeko?

—Atxurrak txikiak badira, asko. Otzarea endia bada, batekin naikoa izango dozu —erantzun eutson Txanton'ek—.

—•—

Au, Pancho Villa, Mexico'n buruzagi zanekoa dozu.

Onek, ots-egin eutson egun batez Estadu bateko yauriariari, gobernadoriari, esanaz:

—Aizu manito; or dotzu nere semea, zeure sekretariotzat yarri dagizun; beraz badakizu zer egin bear dozun: Ondo artu ta aloger obea emon, ordaindu.

Andik egun batzuetara deitu dautso Pancho'ri Gobernadoreak esanaz:

—Buruzagi yauna; zure semeak eztaust balio sekretariotzarako. Ezpaidaki ez idazten ez irakurten.

—¡Orrek erremedio erreza dauko! —erantzun eutsan Panchito'k—: Zeu yarri zaite sekretario, ta, nere semea yarri daitela Gobernadore.

ABELETXE

OTO TA POTOTO

ELBIAK KAPEAN

—"Kapetzo bat artuko al degu?".
—"Bueno, ondo zegok...".
—"Ta pixka bat esnatzen geran, sargori zegok eta...".
—"Nora juango gera?".
—"Café Oriental'era juangogaituk".

Oto, Pototo ta Don Premiñ albeiteroa alkarrekin zebiltzen Donostia'n, "Café Oriental"leko atarian zeuden kapea artzen.

Eguna beroa ere bai ta elbi asko zebillen mai inguruan zurrunbiloan. Moteldutá zeuden elbiok eta kapetara erori zitzaien banaka batzuek.

Don Premiñ'ek, txalo jota, oska dio:
—"Aizu, morroi, ekatzu beste kape bat".
Pototo'k, berriz, kutxarillakin elbia aterata:
—"Ez nijoa beste kape bat ordaintzera, elbi bategaitik beitzat". Esan bezela artu zuan bere kape ori.
Oto'k katillua kertenetik artuta onela dio:
—"Elbitxoa, ankak bildu, barrura zoan da".
Ta danga barrura!

ANES LAZKAU'ko

Itz gurutzetuak

LE.



ZEARRETARA:

1) Aginte. almen. — (aa) Mugatu, berezi. — 2) Tenkada, tiraldi. Zirikada, tentakotu. — 3) Uztargiña, buztarri-egillea. — 4) Rdur'izai ertzean Lande'tako uria. Azpi, funts. Eguzki egunargi. — 5) Gori, suzko. Ekatzul — 6) Aldel-Mende, garai. — 7) Eusko aldizkaria. Aginka. — 8) Zurage, ol. Itxaroten. Katalunia'ko ibala. — 9) Nabarmenkeri, okerkeri. — 10) (aa) Azal mee, mitz. Aurtxoak garraxika. — 11) (aa) Eramanbea; min. Neke, aidura.

GOITIK BERA

1) Bartzelona'ko Sendi Donearen eliz-egille ospetsua. Nik ezik... orrek ere. — 2) Sotil, biozbera. Jauresper, gurpen. — 3) Basakaran, elorrisagar. — 4) (aa) Okitu, asebete. Jabetza atzikia. Egille. — 5) Ugari, oparo. Sotil, azeri. — 6) Egille. (aa) Sorta, besatada. — 7) Urtzain, dominisitkun. (aa) Milla. — 8) Txikitzeko atzizkia. Burutik egiña. Birritan esanik, zuzenki. — 9) Illea ebakitze tokia. — 10) (aa) Ordots, apota. Erak, antzak. — 11) Itsusi, zatar. Zuzen, aribidera.



LAUKOKER

LE.

ZEARRETARA:

1) Utsa. — 2) Itzal, geriza. — 3) Sai, galbai. — 4) Lastargi, zuzi. — 5) Ur-min, tropezia. — 6) Aate, piro. — 7) Jum!!

GOITIK BERA:

1) Bat. — 2) Etxe-leku, orube. — 3) Txori-gari, gain-gari.—4) Atsekabetu, mindu. — 5) Itxasbera, itxasaldi. — 6) Eguzki. — 7) Bat.

E	KROX	KO	AK	E
SAN	TI	TE	KO	RRAK
A	DO	?	GI	LA
TSA	JA	MIN	DI	TA
ZERK	RA	LO	KO	DA

Zaldi jauzka

Lenengo laukitxotik asi, ta ajedrezeko zaldi jauzkak egiñik, esakuna osatu.

AGERPENAK

ITZ GURUTZATUARENA:

1) Gaudi. Ezaze. — 2) Otzan. Gurtz. — 3) Matxakarana. — 4) esA. Ren. Bil. — 5) Naro. Zamo. — 6) Gin. lab. — 7) Uzin. lenA. — 8) Til. Ero. Ker. — 9) Ilemotzegi. — 10) stakA. Kerak. — 11) Ezain. Arixa.

GOITIK BERA:

1) Gomen. utse. — 2) Atasa. Zilliz. — 3) Uztargillea. — 4) Dax. Oin. Ekl. — 5) Inar. Eman. — 6) Ken. Aro. — 7) Egan. Ozka. — 8) Zur. Zai. Ter. — 9) Eragabeken. — 10) zinM. Negar. — 11) ezaño. Arixa.

ZEARRETARA:

1) O. — 2) Anu. — 3) Olabe. — 4) Irazeki. — 5) Ugerri. — 6) Ata. — 7) U.

GOITIK BERA:

1) I. — 2) Oru. — 3) Alaga. — 4) Onazetu. — 5) Ubera. — 6) Eki. — 7) I.

LAUKOKERENA:

1) Gomen. utse. — 2) Atasa. Zilliz. — 3) Uztargillea. — 4) Dax. Oin. Ekl. — 5) Inar. Eman. — 6) Ken. Aro. — 7) Egan. Ozka. — 8) Zur. Zai. Ter. — 9) Eragabeken. — 10) zinM. Negar. — 11) ezaño. Arixa.

ZEARRETARA:

1) O. — 2) Anu. — 3) Olabe. — 4) Irazeki. — 5) Ugerri. — 6) Ata. — 7) U.

GOITIK BERA:

1) I. — 2) Oru. — 3) Alaga. — 4) Onazetu. — 5) Ubera. — 6) Eki. — 7) I.

ZALDI JAUZKARENA:

Edozerk min dagiteleko, jasenkorrak dira arroxko la lotsatiak

JUAN SAN MARTIN-EKIN,...

(3'garren orrialdetik)

orrenbeste denboz «ZERUKO ARGIAK» eskuartean ibilli duena. *Izkuntzarena* da, euskerarena konkdetuki gurean. Askok artu duzute esku. Eta nire ustez esan dira gauz sakon asko beste arinkeri geiagoen tartean. Artikulu guziak irakurri nituen, eta egon nintzen luma artu ala ez, bañan ez nintzen ausartzen gaiaren zaillagatik. Aurrez esanen dizut ez nagoela iñorekin erabat ados, naiz eta norbaitek, azkenean, prolema *pertsonarengana* bildu badu ere,

Zuk zeniona, Yon, nik onartzen dut erabat gezurrik esaten ez duzulzko ta aportazio baliosak diralako. Bañan zer den izkuntza ta zer bere betekizuna gizonagan, gizarteagan... au ez deritzait egun batean eta artikulu bitan egin liteken gaia denik. Utz ditzagun konbenientziak eta deskonbenientziak, utz ere gere sentimendu justifikatuak, utz baita ere gere eskubide naturalak, erantzi dezagun gizona prejuizio edota aurreiritzizko erropa guzietatik ta *de facto izkuntza gizonaren izatezko espresio-bide* bezela artu ondoren, orduan galde genezake lenengo iturrian: *nolakoak dira izkuntzaren eta gizonaren alkarren arteko artu-emanak?*

Ementxe errotzen da niretzat gure prolema. Erantzun-bideak askotariko izan bide ditezke, ots, soziologoak, sikologoak, izkuntzalariek, metafisikuek... ba-lukete parte. Au da(pertsonarekin zerikusia duten guziak dute itza. Bañan nork azken funtsean? Eztakit: aburuak aburu, behar bada metafisikak. Bañan mendi ortara eldu aurretik, lenago ekipoko lan zientifikua osatu beharko litzake, eta denen bilduma edo sintesisa jaso-geroz eman ahal izango litzake (nire irudiz metafisika alorrean) galdera orren erantzuna. Bañan hunek ez du esan nahi galdera guziek erantzuna dutenik, gizonok neurtuak bai-gera. Nik gaurkoz auzi au saiaketa bezela ikusten dut, (approches du langage). Zailla da benetan prolema, arras zailla, zailla den bezela lurraren bestakaldetik gizonak bizi direnentz jakitea. Orregatik nion lenago, galdera guziek ez dakartela atzetik bere erantzuna, derrigorrezko bailitzan.

Bitartean, lanera danok.

PAULO IZTUETA

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
HERNANI, 4
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

ERLOJU TA BITXITEGIA
Eduardo Chopeitia
Getaria, 18 Urrut. 17751 Etxekoa 22700 • DONOSTIA



OIAL BIKAIN BERRI ERAKUSTEGIA
ALDAMAR
Zuzenbidea: Aldamar, 2
(Reina Regente ertzean)
Urrutizkiña 1-54-85
DONOSTIA